

## GOGOETARI LEIHO

## Bertsolaritza, kirol hutsa?

**D**AGOENeko ASKI EZAGUNA DA Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren inguruan sortu den eztabaida. Iskanbilaren sorburua Jon Sarasua bertsolari gazteak finalan bertan izandako jokabide bitxian legoke. Polemika honetan gehiago sakondu nahian edo, urtarrilaren 9ko EGUNKARIAN, Lazaro Azkuneraren salaketa —aholku?— artikulua irakurri berria du. Lazaroren ustez norbaitek derrigor erantzun behar zion holako jarrera bati. Artikulu horretan aurrerago aipatzen duen bezala, beste bertsolari guztiak eta entzulegoa bera ere jokabide horrekin bat ez badatoz, zergaitik behar zaio eman erantzun 'ofiziala' honelako gauza bati, berez berez eta inolako oihartzunik gabe bestela ere itzal badaiteke?


Bere azterketaren hasieran, beste edozein kirol bailitza hartzen du bertsolaritza eta noski! kirola lehia da eta lehia den neurrian lehiakideak «duen haina odol eman behar du», bestela bere izatearen arrazoa kenduko bailioke kirolari. Hau funtsezkoa da, baina bertsolaritza hori baino askoz gehiago dela uste dut. Nik neuk, irakaslea izanik, ondo baino hobeto ezagutzen ditut bertso munduaren baliabideak. Ez dute balio, beraz, «sakea txapatera» bezalako metaforak, «tongo» egin duelako salaketak... eta abar. Ez gara pelota partidu bat aztertzen ari, eta konparaketa hauek ez digute utziko benetako arazoa non dagoen ikusten.

Ikus ditzagun puntuak puntu Sarasuari egozten zaizkion erruak:

— **Entzuleak** ez dituela errespetatzen. Bere jarraitaleei ez ziela poz handiegirik emango txapela ia eskua zeukala jakiteak.

Nork esan lezake hango ikus-entzuleek hainbestearinoko faboritismoz hurbildu zirela Anotara? Nik badut bertsolariren bat besteak baino gustokoago baina txapela bere buruan ikusteak ez dit batere lorik kentzen.

Egia da, bestalde, inork begirunea merezi badu, hori **entzulea** dela baina errespeto hori plazaz



plazako saio guztietan zaio zor eta ez txapelketako finalean bakarrik. Zenbat aldiz gertatuko zitzaizun bertso saio bat ikustera joan, hango bertsolariak atsegin genituelako edo, eta kartelean agertzen zirenak barik beste 'ordezko' zenbaitzuekin topo egitea? Plaza denak ez omen dira berdinak eta bertsolarien artean ere ba omen daude preferentziak. Ez dut oraindik honen aurkako erantzun 'ofizialik' inon idoro.

— **Antolatzaileak** ez dituela errespetatu. Ikus goian aipaturiko puntuak eta konturatuko gara nola hainbat eta hainbat antolatzailek, aurretiaz saioak ondo borobilduta eta loturik euki arren, azken orduko 'ordezkatze' lanetan ibili behar izaten duten jaialdietako izarrek hitza jaten dutelako, eta askotan abisatu ere egin gabe.

— **Bertsolariak** ez dituela errespetatzen. Beste guztiak eginahalak egiten eta Sarasua, berriz, puntuak zakarrontzira botatzen. Hala ere beste batuk baino lehenago sailkatu. Ongi ohartzen

baldin bagara, ez zuen bitxikeria hori 'ofizioko' saioetan egin eta, beraz, ezin zion inori kalte 'materialik' egin. Beste batzuk baino lehenago gelditu zela? Hori lehiaren funtsa da.

— **Epaileak** ez dituela errespetatu. Ez zekitela zer nola puntuatu. Nire ustez, beste bertso guztiak neurtzeko erabiltzen diren erizpideez, hala nola hizkuntzaren erabilera, gaiaren sakontzea, errimaren aberastasuna... eta horren arauera zero puntu merezi ezker, zero eman.

Artikuluaren bukaerantz guzti honek ekar litzaken ondorio posible batzuez mintzatzen da Lazaro. Txapelketa ondorengo protagonismo guztia Sarasuak berak bildu duela esaten du. Nire ustez Lazarok berak eta nik neuk ematen diogu protagonismoa, 'ekintza' hari neurrigabeko jarraipena emanaz. Bere burua erakusteko premiarik ez du Jonek, bere dohaiak denen begibistakoak dira eta.

Txapelari paso egiteak txapelaren bila saiatzek baino garrantzi handiago hartuko duela. Ez dut uste inolaz ere han bildu ziren hamar mila lagunak inpresio horrekin aterako zirenik.

Peñari ere kalte egin omen dio, bere garaipena nolabait errelatibizatuz. Lehen aipatu dudana bezala, kazetariak beraiek eta hau bezalako artikuluek lausotu dute Peñaren garaipen argia. Ez berak merezi duen heinean zoriontzeko erabili izan balira indarrak!

Ez nuke amaitu nahi zerbait aitortu gabe. Lazaro Azkunek urte asko daramatza bertso mundu honetan eta ez dago dudarik nik baino askoz gehiago egin duela eta egiten ari dela bertsolaritzaren alde. Zorionak beraz. Hala ere, ez dut uste Jon Sarasuak eman zaion tratua merezi duenik. Berak egonezin bat sentitu du eta hala adierazi du; egia da Bertsolari Elkartearen bidez zuzendu zitekeela kezka hori baina ekintza guztiek, ematen zaion garrantzia euki ohi dute.

JON ANDONI URIARTE GARAI

## BIDEZIDORRAK

## Irisarri eta Baigorri

MARIANO IZETA

**I**risarri eta Baigorri egun eder bat iraganik, bozkarioz beterik etxeratu ginen. Joan den abenduaren 15ean Elizondan egin zen bezala, orain urtarrilaren 5ean Irisarri eta Baigorri ospatu da, hiru bertsozaleen ohoretan. Hernandorena jauna eta ni ere hor ginen Emile Larre'ren ondoan. Goizeko 2etan Irisarri Meza Nagusia, Emile Larre jaun erretora Meza emaila ginuela. Aldare inguruan Irisarri'ko kantariak. Eliza bete bete eta Meza hun-



kigarria, kantak suharki kantatuz bihotza hunkitzen zutela. Elizkizun

zoragarria. Zorionak Irisarri herriari eta erretore jaunari. Meza ondoren hitzaldiak omenduen ohoretan eta ondoretik 'zintzurra bustitzea' ezker pareta aterbean. Gero Baigorri'ko Manexenean bazkaria. Hor ginen omenduak, bi aldetako nafatar bertsolari guztiak, Euskaltzaindiko Lehendakaria, Euskal kulturaren dabilizan jaunak, bi herrietako Aitzindariak, jaun apezak ere gure ondoan, bertsozale aunitz, denak elkartasun zoragarria. Euskal Telebista ere hor g. nuen. Bazkalondan bertso saio ederra, soñu eta kantu, denak sasoin ederrean. Emile Larre jaunak berak moldatutako bertsoak kantatu zituen eta xarmanki. Gure adiskideak ohorezko edergailuak hartu zituen eta guk ere hartu gintuen gerenak. Bihotz bihotzez eskertzen dugu hartu dugun ohorea. Orain Donostian hilabete hunen 19-an, Victoria Eugenia antzokian ospatuko da Euskal lerriko Bertsolari Elkarteak eskeiniko digun Omenaldia. Hor egonen gara Teodoro Hernandorena, Emile Larre eta Mariano Izeta. Eztakit guk hainbertze ohore merezi dugun baina bihotzez eskertzen dugu.

Badirudi Nafarroako bertsolaritzaren alorra pizten ari dela, landare berriak sortu dira eta horrek bozkarioz betetzen gaitu. Baratzea ongi zaindu eta hazi ona erein Nafarroan bertsolariak sortu daitezten.

## HEMEROTEKA



PATXI BISKERT

Aktorea  
ARGIA

1992+12

«**B**ada benetazko euskal zinema bat. Baina oraindik gorpuztu gabekoa, hastapenetan bait gaude. Ez dago azpiegiturarik. Jende aldetik, bai, azken hamar urteetan hainbat teknikari atera dira, aktoreak... Euskal zinemaren inguruan beharrezkoa den industria eza da huts egiten duena. Urtero bi filme egiten dira normalean, eta urtea oso ona bada, bost. Baina horrek ez du jarraitu izaten, eta inguruko industria ez da eratzten. Jendea bakarrik ez da nahikoa industria hori sortzeko. Dirua ere beharrezkoa da, eta jendea zinemaren errentagarritasunaz jabetzea da falta dena».

«**K**ulturak egunerokotasunean sustraitua izan behar duela uste dut, epe luzerako uzta moduan ulertu behar dela, baina hemen, tamalez, itxurakeria hutsa balitz bezala tratatzen da. Adibide gertua dugu Guggenheim famatua, kulturaren munduko bat baino gehiago ezustean harrapatu gaituena; Europako komunitateetan 18.000 milioi gastatzen dira birmoldaketa egiteko edo industriari laguntzeko, baina hemen askoz ere «dotoreagoak» gara eta 20.000 milioi gastatzen ditugu inork eskatu ez duen museo bakar bat egiteko. Ez dago loturirik behar denaren eta egiten denaren artean».

JULIA OTXOA  
Gaztelarazko idazlea  
EL DIARIO VASCO

1992+12



JOSE MARIA GORORDO

Bilboko alkate ohi  
EGIN

1992+12

«**G**uztiantzat pozgarria izan behar luke Bilbon kulturarako 25.000 milioi jarriko direla jakitea. Kopuru horrekin, Museo bat ezezik, kultur etxe bat ere izango dela baieztatzen bada behintzat, bere antzerki esperimentalekin, bere ikerketa zentruarekin, liburutegi publikoa, musika kontsebatarioa... derrigor bete beharreko hutsuneak bait dira horiek, Bilboko talde eta elkarte kultural guztiek behin eta berri eskatutakoak. (...) Alhondigako egitasmoa handinahi eta faraonikoa zela esan zutenei, konparazio eta gogoeta ariketa egiteko eskatuko nieke, eta ondorioen berri eman dezatela».

«**E**uskal arkitektura anonimo samarra izan da. Hemen gauzak egiten dira, baina bere produktuak saltzen ez dakien herri txikia gara. Euskadin proiektu onak daude, hemen bertan ere ezezagunak direnak. Joera absurdu eta kezkarria dago: proiektu garrantzitsuak kanpoko jendeari enkargatzekoa. Kriertarrak oso onak dira, baina eurak ere harrituta geratzen dira hemengo proiektuak enkargatzen dizkietenean, bai bait dakite hemen oso maila ona dagoela irtenbideak emateko. 'Urrutiko intxaurren' pentsamoldea nagusi. Tamalgarria da hemengo profesional asko langabezia egotea».

XABIER UNZURRUNZAGA

Arkitektoa  
DEIA

1992+12

